

Familia horiek:

Ikasturteari hasiera emateko eskolan aparteko neurriak hartu beharrean gaude. Neurri honek zehatz-mehatz betetzea ezinbestekoa izango da eskolan segurtasuna bermatzeko.

Hauek dira Hezkuntza Saitetik jaso ditugun neurriak:

FAMILIENTZAKO DEKALOGOIA

Dekalogo honetan, ikastetxeari hertsiki ez dagozkion arren, zentroarekin lotuta dauden eremuak ere nabarmentzen dira; beraz, eremu horien gaineko kontrola, hala nola informazioa transmititzea beharrezko denean, birusaren kutsatzea kontrolatzeko bermea izango da, eta, hala badagokio, foku posibleak detektatzeko trazabilitate egokia lortzea.

Dekalogo hau, lehentasunez, adin txikiko seme-alabak dituzten familiei edo ikastetxeetan ezarritako jarraibideen transmisio egokia mugatzen duen desgaitasunen bat duten ikasleen familiei zuzenduta dago.

Jakina, ikasturte hasieran bilerak egingo dira familiekin, ikastetxe bakoitzak bere kontingentzia-planean jaso dituen neurrien berri emateko, Osasun Sailak jakinarazitako irizpideak betetzen direla bermatuz. Hala ere, gorago aipatu bezala, ikastetxetik kanpoko espazioak, jarduerak eta zirkunstantziak azpimarratu nahi dira.

1. Hurrek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
2. Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
3. Laguntzaile hauek ikastetxean sartu ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua jarri beharko dute edo horretarako baimena izan beharko dute.
4. Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratu.
5. Haur guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunean erabiltzeko higie-ne-baldintzak bermatuko dituena.
6. Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarrizko higie-ne-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:
 - ikastetxeko seinaleak errespetatzea

- maskara erabiltzea
- eskuak garbitzea
- aretoak aireztatzea
- bizikidetza-talde egonkorreko kide izatea

7. Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
8. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
9. Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.

Gogoraraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19ren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez.

Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun Sailaren webgunean:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria> (euskaraz)

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/> (gaztelaniaz)

Azkenik, eta aldi horretan familiei laguntzeko, Hezkuntza Sailak "COVID-19, familientzako orientabideak" izeneko dokumentu bat argitaratu du, etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuekin.

Honetaz aparte eskolako sarrera-irteera eta ordutegietan ere aldaketak egin beharrean gaude. Honela geratu dira:

Aurkezpen eguna: Irailak 7

	SARRERA	IRTEERA
6.MAILA	09:10ean sarrera nagusiko eskumaldetik	11:10ean sarrera nagusiko eskumaldetik

Ordutegi trinkoa: Irailaren 8tik 14ra

	SARRERA	IRTEERA
6.MAILA	09:10ean sarrera nagusiko eskumaldetik	13:10ean sarrera nagusiko eskumaldetik
Ordutegi trinkoan jantokikoak 14:55ean irtengo dira.		

Ohiko ordutegia: Goiz eta arratsaldez


	GOIZA	EGUERDIA		ARRATSALDEA
6.MAILA	09:10ean sarrera nagusiko eskumaldetik	12:55ean Asteazkenetan:13:10ean	14:55ean	16:25ean sarrera nagusiko eskumaldetik

Sarrera-irteeretako ateetan ikurrak egongo dira, eta norabideak gezien bidez zehaztuta egongo dira.

SARRERA: Eskolaren aurreko aldeko sarrera nagusiko eskumaldetik izango da.



IRTEERA: Aterpe ondoko atetik patioa zeharkatuz.



Ikusten duzueenez, ezingo ditugu sarrera-irteerak ate berberetik egin, eta oso garrantzitsua izango da jarritako orduak errespetatzea pilaketak saihesteko.

- Lurrean puntu batzuk egongo dira ikasleak bertan kokatzeko segurtasun-distantzia mantenduz.
- Maskara etxetik ekarri beharko dute, eta gelan ere aldean izan.
- Eskolaren aurreko aldeko bidean ezingo da aparkatu ikasleen sarrera orduetan.
- Jantokiari dagokionez, jantoki-zerbitzua irailaren 8tik aurrera egongo da, baina ezingo da normaltasunez eraman aurrera. Egoeraren arabera aldaketak egon daitezke. Momentuz COVID-19ak eragindako aldaketengatik noizbehinkakoak ezingo ditugu hartu.

Eskerrik asko aldez aurretik eskolaren funtzionamendu egokirako egindako ahaleginengatik.

Jaso gure agurra.